

ARRASATE

PRESS



Arrasate 1989ko Apirilak 21 19. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Urbiako ermita

Urbiako pista, eztabaida kalean dago

Urbian pista berri bat egin daitekela eta, inguruko mendizale elkarte eta ekologista taldeak biziki kezkatuta agertzen dira azken egun hauetan. Pista berri hau, Urbiako artzai talde baten eskaera da, urtean seiren bat hilabete bertan pasatzen dutenez, beren bizitza behar den besteko duintasunez bizi ahal izateko beharrezko baldintzatat dute pista berri hau. Dena dela, Urbian lan egiten duten artzai guztiak ez datoz bat honetan. Ekologista eta mendizale elkarteak aldiz, pista honek on baino kalte handiagoak ekarriko lituzkeela azpimarratzen dute, kotxe ugalketa handia suposatuko bait luke eta horrez gain inguruaren hondamena.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Korrika

Euskararen aldeko lasterketa simboliko honek birritan zeharkatu zuen Arrasate, jende askoren parte hartzea lortuz (11.or.)

AEDk antolatutako

hitzaldi zikloa bukatu da. Guztira, hiru saio izan dira (6.eta12. or.)

ELKARRIZKETA


Arrasate Musikalak bere Batzar Nagusia izan du. Hau dela eta, **Juanito Arzamandi** ekarri gura izan dugu gure orrietara (17. or.)

PODIUMA

Yoga-Elkartearen arduraduna den **José Luis Aremendiarekin** solasaldia (19.or.)

FOTOZAHAR SARIKETA

Sariketan parte hartzen duzuenon artean, astero bideo filme bat zozkatuko da. Horretarako postal bat bidali 27. orrialdeko galderaren erantzunarekin. Ez ahaztu izen deiturak eta helbidea. Hile amaieran, postalak bidali dituzuenon artean 14''dun kolorezko telebista zozkatuko dugu, Viguri dendari esker. Ea bada, animo eta zorte on! (27. or.)



Arrasate Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
---	--------

OSTIRALA 21

- Zinea: Alai: "Estos locos bomberos"
Novedades (Bergara): "Harry el sucio en la lista negra" 10,30etan.
- Goardiako farmazia:
A. Ruiz, Maalako Arrabala.

LARUNBATA 22

- Zinea: Alai: "Atracción fatal"
Novedades: "Asesinato en Beberly Hills" 5, 7, 10,30.
- Goardiako farmazia:
A. M. Morales, San Andres.

IGANDEA 23

- Zinea: Alai: "Atracción fatal"
Novedades: "Harry el sucio en la lista negra" 5, 7,30, 10,15.
- Urbiako pistaren kontra-
ko konzentrazioa:



Ibilbidea: Arantzazu- Urbia. Irteera:
8etan Garibaitik (buelta: eguerdian).

- Goardiako farmazia:
Ruiz Torre.

ASTELEHENA 24

- Zinea: Alai: "Atracción fatal"
Novedades: "Harry el sucio en la lista negra" 7,30etan.
- Goardiako farmazia:
S. Español, Iturriotz.

ASTEARTEA 25

- Zinea: "Atracción fatal"
- Goardiako farmazia:
Corcuera, Elcano.

ASTEAZKENA 26

- Goardiako farmazia:
Irizar, Erguin.

OSTEGUNA 27

- Hitzaldia (ETAren Historia):
7,30etan Oñatiko Kultur Etxean,
"Sortu aurreko urteak: gerra zibilak eta bere ondorioak ETAren sorreraino: 1936-56" (Jose M^a Garmendia).

IKASTAROAK

- Espresio eta dantza orientala: Yoga Elkar-
tean (J.L. Iñarra, 26-28). Apirilaren 22 eta 23an.
Prezioa: 6.000 pta. Irakaslea: Sadhani. Plaza mu-
gatuak: 79 35 76.



ERAKUSKETAK

- Iñaki Larrañaga: Pintura-erakusketa "Zirriborroak".
Etxe-Aundi jatetxean (Torre Auzo, 9 Oñati). Apirila osoa.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan
Martin Elexpuru, Mikel Arregi,
Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Mertxe Garai,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



BIZI GAITEZEN LASAI!

Sarri asko etxetik irten behar du-
gunok, bidaia luzeak edota ez hain
luzeak egiteko, hegazkina erabiltzen
dugu. Zibernetikako gizartean,
“time is money” esaera urrezko arau
bilakatu denean, abiadura eta presa
ditugu aldameneko bidailagun.
Agure eta atso batzuen gogoan gera-
tu dira, Donostiara hurbildu nahi eta
hiruzpalau egunetako bidaia gertu
behar izatearen larrialdiak. Edota
Milaneko Erakustazoka bisitatzera
joan eta aste pare bateko egonaldiaz
gozatu behar izatea.

Gaurreguneko zibilizazioak ez
digu gure aiton-amonen arinkeriarik
baimentzen. Gehiegizko luxutzat
hartuko litzateke patxadaz bide egi-
tea; kontsumozko gizarteak onartu-
ko ez lukeen gainezkako gastua.
Ostiral arratsalde honetan, malguta-
sungabeko heria eten dut. Barajase-
ko aireporturantz abiatu beharrean
Chamartineko trengeltokira zuden-
du ditut nere urratsak eta Talgoa
aukeratu dut Gasteizerainoko ga-
rraiobitartekotzat.

Lau ordu luze, eserlekuan
erosoki kokatua, lehiatilatik paisaia

aldakorra heltzen zitzaidala. Eta
gogoari atsedenditxo egokia
nemaioarik lan egunetako neke
fisikoak aukera lasaigarria eskertzen
zidala iruditu zait.

Miguel Delibesen Lorenzo ehiz-
tari amorratuaren egunerokoan
Gatzelako eremu latz eta lehorreta-
tik nembilen bitartean, trenak Euskal
Herrirantz hurbildu ninduen. Lo
kuluxkaren bat ere ez da falta izan.
Ezta kafe bat hartzeko parada ere.
Dena mantso, mantso.

Nolako garraibidea halako gi-
roa; agian, horrela esan liteke, ingu-
ruko nire bidaikideen aurpegieta ez
bainituen, hegazkinetakoenetan ohi
bezala, kizkurketan, hasarrea, asper-
keria eta gizarte aurrerakoiegiak
gugan sortu dituen gainerako gaixo-
tasunen arrastroak nabaritzen.

Ez naiz, noski, RENFERen alde-
ko zabalkundea egiten ari. Bidaia
modu laketgarriz antolatzeko espe-
rientzia adierazi nahi izan diot ira-
kurleari, batez ere- gehienetan - bere
joanetorriak presaz eta sosegurik
gabe eratu behar dituen pertsonaia
naizenez geroztik.

Jose Mari Velez de Mendizabal

inpresio ona



**inprimategia eta
autoedizio
zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA



**FAMILI
ETA GIZARTE-
HEZIKETARAKO
ZENTRUAK**

***ESKULANAK: LARRU eta
ESTAINU-LANKETA.**

Osteguna, Apirilak 20, 6,30etan.

***SUKALDARITZA:**

Astelehen eta asteazkenean, apirilak 24,
6,30etan.


HURRENGO ASTEAN

- Sukaldaritza, ostiraletan, arratsaldeko 3,30etan
- Eskulanak, ostegunetan, arratsaldeko 3,30etan
- Puntugintza eta gakorraz-lanketa, asteartean
- Gimnasia, astelehen, astearte eta ostegunetan,
goizeko 10,30etan

Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE



Iturriotz,9 Tfnoa:799457

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

**Agirre
Miota
Gestoria**

Zerga deklarazioak
Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

Sarraski gartzeletan 10 urte

Berriro gartzelek eta Espainiako Estatu "demokratiko"ak euskal preso politikoei aplikatzen dien politikak suposatzen duten aztarna baten aurrean aurkitzen gara.

Kasu honetan, Pedro Guridi Arozena (Pedrotxo) presoak duen egoera salatzen dugu, duela 9 urte detenitu eta gartzelan dagoena.

Polizia dependenzietatik eta hainbat gartzelatatik (Carabanchel, Soria, Alcalá, Herrera, Hospital Penitenciario) pasatzean jasan behar izan dituen irain guztiak sufritu ondoren, honek presoek pairatzen duten lekualdatze eta sakabanaketa politika agerian jartzen du, familiarren eta lagunaren bisitak zailago egin asmoz.

Gainera, E.H.L.ren (Euskal Herriko Langileria) alkartasuna lortzeko ere zaildu egiten du; gartzeletako egoera duin baten aldeko 6 gosegreba egin dituela kontutan hartuz, oraingoak, lehengoarekin batera,

gaur egungo egoera okerrago jarriko dela esan gura du.

Ebaketa baten zain, bi nodulo hotzengatik: batek lepoaren eskumakaldeko "glandula bitoidea"ren 2/3ei eragiten die eta besteak ezkerrekaldean.

Gutziz larria den egoera baten aurrean gaude eta horregatik, gartzeletako osasun-egoera salatzen dugu, medikuen axolagabekeria eta Estatuaren egituraketa (epaileak, funtzionariak...), gartzela-sistema honek sortu duen balantze tristea begi bistakoa delarik (Goikoetxea, Kurruli, Retolaza, Sarasketa...).

Amnistiaren Aldeko Batzordearen izenean salaketa egin ondoren, sarraski-politikaren aldaketa exigitzen dugu, baita preso guztiak etxera ekarriko dituen politika ere; eta ondorioz, Amnista Osoa.

Gure adiskidea den Pedrotxori agudo osatzea opa diogu.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko
Batzordea


"ALPA!"

Gure ibilialdiaren seigarren hilabeteari ekin behar diogunean, 3.000 ale inprimatu eta zabaltzera heldu gara. Zuri esker, irakurle.

Orain zure berri gehiago jakin nahi dugu. Emaguzu, bada, zure pozen eta kezken berri. Gutunak idatzi. Bidea elkarrekin egin dezagun. Lepoan hartu eta segi aurrera.

ARRASATE
Press

Korrika euskararen alde borrokatzeko era bat dela uste duzu?




Aitor Etxabe
(tabernaria)

Bai, ekintza herrikoia da eta euskararen alde egiten den gauza bakarretarikoa. Instituzioak eta Eusko Jaurlaritza ez dira euskaraz asko arduratzen, ipurdia bero dutelako.



Aintzane Azkarate

Bai, euskararen alde herri mailan egiten den borrokarik garrantzitsuenak da. Alderdi politikoen gainetik dago. Euskararen alde gauden guztiok Korrikaren alde egon beharko genuke.



Blanka Jauregi
(Udaletxeko langilea)

Bai, euskara hizkuntza denona da eta horrelako ekintzak herri mailan bultzatu behar direla uste dut, ez instituzioetatik.



Joxe Azkarate
(Jubilatua)


Beno zerbait egingo du euskararen alde, baina AEK instituzioetara hurbildu behar da. Instituzioek bideratu behar dute euskararen alde egiten den lana.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORRIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

“Nik Arrasate Pressen ikusten dudan akatsik handiena 32 orrietatik bakarrik bat bertako euskaraz izatea da. Orrialde honetan, gainera, kolumna bat Bergarako euskaraz idatzita dago. Eta tratatzen den gaia ikusten badugu, txisteak dira, honek bertako euskalkia pailazoan hizkuntza bezala identifikatzeko duen arriskuarekin”.

(Koldo Zuazok, Apirilaren 13an Monterroneko Hitzaldi Aretoan esana)

“Akordio honen ondoren, elektratresnak arloa behin betiko gorpuztuko dela ematen du, hiru talde indartsurekin. Kanpoko talde bik multinazionalen inguruan dihardute, esaterako: Bosch-Siemens, Balay-Safel-en kontrola hartzean, eta Suezia-Italiako Electrolux-Zanussi, Corberó-Domar enpresa zuzentzen duena. Fagor taldea, berriz, askoz apalagoa da; halere, abantaila dauka beste produktu-mota askotan diharduelako, hala nola, elektronikak, ingeniariak eta kontsumo-ondasunak”

(J. Areso kazetariak DV egunkarian)

“Antza denez, egoera honetatik irteteko EAko ejekutiba nazionalak pentsatu duena, Pedro Mendieta Gipuzkoako ejekutibaren buru jartzetik pasatzen da. Oraindik zuzen zuzenean istiluetan erre ez den pertsona eta oraingo gatazkak aurrera aterako dituen talismana”

(Jose Ramón Beloki kazetariak “Deia” egunkarian)

“Monterroneko hitzaldi-gela erabiltzea bultzatu nahi dugu, Amayako kultur ekintzak kalera ateraz, udako hilabeteetan, behinik behin. San Juanetatik aurrera kontzertuak antolatu nahi ditugu. Arrasate Musikalekin berba egin eta ikusi nola egin dezakegun. Antzerki taldeek ere parte hartzea gura dugu. (...) Buruan dugun beste ideia bat: aire librean gaueko zine-emanaldiak antolatzea

(Xabier Bengoa, Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeko burua den zinegotziak “El Correo Español” egunkarian)

“Un futuro para nuestro pasado” liburuaren aurkezpena egitera zerk bultzatu zaituzte? Zein da egiten duzuen balorazioa?



Pentsatzekoa denez, ezer erakargarririk ez duen liburu bati ez zaizkio aurkezpen gisara hiru saio ematen; ez litzateke beharrezkoa. Erakargarriak eta, orobat, euskarak aurrera egingo badu gureganatu beharrekook iruditzen zaizkigulako eman diogu horrenbestearainoko garrantzia Txepetx-en lan eder honi.

Gero eta gehiago garelako euskararen etorkizunarekin benetan konprometituta gaudenok, orduan eta beharrezkoago zaigu marku teoriko bateratsu baten inguruan bideratzea gure lana.

Arrasaten euskarak erderari lekua jaten serio hasteko euskaldunon *hiztun-komunitatea* konpaktu beharra inoiz baino argiago ikusten dugulako, berandu ez den artean lehenbaitlehen bide horretatik abiatu beharra inoiz baino derrigorrezkogoak dakusagulako; arrazoi haundi honexengatik antolatu dugu AEDren baitatik aurkezpen hau.

Nire ustez, AEDk bere sorreratik izan duen jokarekin oso akort dator liburuaren mamia; honela, ba, saioetara hurbildu den jende adoretzu kopuru handia kontutan hartuta, ez dut uste kasualitatea denik horren harrera ona izatea Arrasaten Txepetx-en liburuak.

Guk, gure aldetik, dinamika berri honi zerbait aportatu nahian, Monterroiko saioek eman dutena garbiago ikusi ahal izateko, laster kaleratuko ditugu hainbat bideo eta material idatzi. Txepetx-en liburuaz beste hainbat tokitan ere erreflexiona dezaten balioko ahal dute material hauek! Horra gure aletxoak egingizun haundi honetan!

Julen Arejolaleiba

Eskoriatzako Magisteritza eskolako irakaslea eta AEDko kidea

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

BIDEO-EMANALDIA



“JOSHUE eta JERIKO GATAZKA”

Tokia: **MONTERRON KULTUR ETXEA**




Eguna: **APIRILAREN 22an**

Ordua: **Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 4 eta 6etan**

Prezio: **50 PTA.**

Sarrerak: **MONTERRONEN**

ANTOLATZAILEA: **ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA**



BISITA ITZAZU GURE SEKZIOAK:
KAMPIG-A
OINETAKOAK
KIROLAK
ASTIA

ESKATU KATALOGOAK



LORAMENDI: KiROLAK

T x a n d a k a

laburrak

Arrasate Irratia

Orain, alde guztietan sortzen dira irрати taldeak, aldizkari berriak, telebista pribatuak (?), etab.

Komunikabideak nahiko zabalduaz doaz; eta besterik ez balego, ormirudiak. Baina...

Frankoren garaian bizi izan garenok badakigu nolako kontrola izan zen aldizkarietan, irratietan, telebistan, egunkarrietan...

Hala ere, Arrasaten, 1955etik 1965era, irрати berezi bat kaleratuta ibili zen: Emisora Parroquial de Mondragon zeritzana.

Arrasateko Eliz Nagusiaren izenean Eskola Profesionalean sortu zen irрати hau. Ideia, Don Jose-maria Arizmendiarietarena; tekniko asmatzailea Santos Eloseggi Andini, irakaslea; zuzendaria, Esteban Illaramendi.

Zoritxarrez, dena erderaz; eta elizaren izenean; ez zegoen beste biderik; euskara erabiltzea debekaturik zegoen. Euskaraz? Ipuintxoren bat, diska xelebrenen bat, elkarrizketa laburtxoren bat... eta kitto! Bestela, begiratzailleak zain izaten ziren, salaketako prest. Euskadi, Euskalerrri, euskotar, euskaldun, euskara... tabu hitzak izan ziren.

Eguneroko egitaraua hauxe izaten zen, gutxi gora behera:



*Juanito Leibar**

Goizeko hamaiketant: Sarrera, musika eta herriko albisteak.

Hamabietan: Eskatzaileentzat diskak. Hamar pezeta diska bakoitza.

Eta gero, hirurak arte: berriro musika, elkarrizketak, kultur lehiaketak, eskolarteko albisteak, eskelak, etab.

Noizean behin, iragarkiak: behi bat galdu zela Oñatiko bidean; mutil gazte batzuk ihes egin zutela etxetik; piano bat salgai zegoela...

Beste emankizun berezi batzuk ere izaten ziren: jubilatuen omenaldiak Udalpe Elkartetik jatordua eskainiaz eta ondoren bertsoak, ipuinak, elkarrizketak...; ziklokross txapelketa Iturripeko zelaitik...; zarzuela eta jaialdi bereziak Gurea aretotik... mesa nagusiak Parrokia-tik. Azkenez, horrelako Irrati kontrol gabeko bat, nahiz eta herritxo baten ingurukoa izan, arriskugarria eta problematikoa sortzen zen gobernu antidemokratiko batentzat.

Horregatik, 1965ean Arrasateko Emisora Parroquiala ixildu egin beharrean aurkitu zen, lege fantasma bat aplikatuaz: Baimena ezeztatu elektrizitate indar berezia erabiltzeko.

Eta horrela hamar urte pasatuz gero, gure Urreixindorra ixildu zen

(*) Eskola Politeknikoko irakaslea

✓ **Arrasate Musikala**

Ostiralean, hilak 14, izan zen Arrasate Musikalaren Batzar Orokorra. Bertan Batzar bazkideen berri-tape-na izan zen. Hamabi batzarkideren artean, honako lau berri hauek hautatu ziren: Luis M^a Ayala, Angel Egues, Javier Umerez eta M^a Asunción Viquendi. Batzordetik irten direnak, berriz, honako hauek ditugu: Amaia Uranga, José Antonio Villar, Eusebio Iñarra eta M^{er}txe Madinabeitia. Lehendakaritzan Eusebio Iñarrak Juan Luis Castillori uzten dio postua. 87-88ko ekitaldiko balantzeari dagokionez, 50.000.000 pta.ko aurrekontu batetik, 6.300.000 ko defizita izan da.

✓ **Familia euskaldunen etxeetan euskara praktikatzeko aukera**

Euskaldunberri bat etxean udan hartu nahi duten Arrasateko familia euskaldun guztiei deialdia luzatzen zaie. Euskaldunberri bat hartzeagatik 45.000 pta. jasoko ditu, 15.000 ikasleak berak emandakoak eta 30.000 Eusko Jaurlaritzaren kargura. Bai familiek bai ikasleek, interesatuta izanez gero, Udaletxean apuntatu beharko dira Maiatzaren 15a baino lehen.

✓ **Udako Euskal Unibertsitatea**

Udalak Udako Euskal Unibertsitateari 26.500 pta.ko laguntza emango dio eta bertara joango diren arrasatearrei beka erdia eskainiko die.

✓ **AEDri laguntza**

Udalak AEDri 1.989ko lehiaketak antolatzeko 2.500.000 pezetako dirulaguntza emango dio.

✓ **Garibai Etxea berriztuko**

Azkenengo Gobernu Batzordeak onartu zuen Garibai Etxea errehabilitatzea. Oraingoz zertarako erabiliko den jakin ez bada ere, Gazteria Batzordeak bertan "Gazteriaren Informazio Bulegoa" kokatzea proposatzen du.

ANDERE

Bainu eta sukaldeko
ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.

*Lehen mallako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzeak.


*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diselnu altzarletan trebatuak gara.

Memesa

Arrasate

79 42 22



Zarugalden kalte handiak izan dira


Uholdea, berriz

Azkenaldi honetan badirudi edozein momentutan uholde arriskutan gaudela. Eta esan daiteke gure herriak zorte duela, azken urte hauetan inguruko herriak izandako uholdeekin konparatuz, behintzat. Dena dela, hemen ere kalteak jasan ditugu. Horra hor, orain dela astebete gutxi hainbat dendatan izandakoak; eta aste honetan bertan, Zarugaldeko garaje eta lokal batzuk uraz bete ziren, kalte garrantzitsuak sortuz. Meatz Errekatik datorren erreka izan zen kalte hauen erruduna. 25 garaje urez eta lokatzaz bete ziren, bi kotxe eta bertan gordetzen ziren hainbat gauza hondatuz. Denda batzuk ere kalteak izan zituzten. Argazkia asteartean aterata dago. Ez al da posible kalte hauek aurrikusi eta ebitatzea?

AGAk Gureako giltzak entregatu

Gureako lokalak egoera txarretan daudela eta Udalaren aldetik ez zegoela konpontzeko asmorik ikusirik, Gazte Asanbladakoek Martxoaren lehen aurkeztu zuten proposamen bat, Gaztetxea Hospital Zaharreko lokaletan kokatzeko. AGAk, proposamena onartuta izan ez denez, Gureako giltzak Udalarari entregatzea erabaki du.

Honetaz gain, talde honek herrian zabaldu duen ohar batek dioe-



AGAk lokala eskatzen du

nez, Arrasateko Gazte Asanbladak jarraituko du, bai lokalak eskatzen bai lanean. Baita ere, erantzun bat eskatzen diote Udalarari, duela hila-bete batzuk talde honek aurkeztutako aurrekontuei buruz.

Iturripe: hasierako akordioa

Astelehenean Udalak eta Gizabide Fundazioak hasierako akordio batera heldu ziren. Akordioak hiru puntu ditu:

— Udala Iturripeko zati batetaz (Uribe Auzotik gertuen dagoena) jabetuko da.

— Beste zati bat (atletismoko pista) hiru urtez bakarrik erabili ahal izango du. Zati hau Gizabideak Eskola handitzeko duen asmoaren barnean sartzen da.

— Eta hirugarren zati bat (erdi-koa, hain zuzen) Udalak epe luze-rako erabiltzeko eskubidea izango du.

Udalak, honen truke Hirigintzako Arau Subsidiarioak aldatzeko konpromezua hartu du. Helburua Gizabideak toki honetan eraikitzeko ahalmen handiagoa izatea da.

STIHL

HONDA

MOTO-KIROL

Gipuzkoako Etorbidea 7, Tfnoa: 79 11 78 ARRASATE



PUB HAIZEA



LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

laburrak

✓ 40 urte elkar ikusi barik

Urkiola Lonbide anaiak 40 urte elkar ikusi barik pasa ondoren, berriz topo egin zuten, duela gutxi Argentinan. Juanek 1948an Mondragoetik alde egin zuen Mexikorantz, eta gaur egun Vera Cruzen bizi da. Sabino 1970ean, berriz, Argentinara joan zen. Hemendik aurrera biak elkarrekin biziko dira Mexikon.

✓ Bideo emanaldiak Monterronen

Apirilaren 15etik Maiatzaren 29ra larunbatero bideo-emanaldiak izango dira Monterronen. Hiru emanaldi izango dira larunbatero: 11.30etan, 4etan eta 6etan. Sarrerak Monterronen egongo dira salgai, aldez aurretik, 50 pezetatan. Besteak beste, honako filma hauek proiektatuko dira: Purpura Kolorea, Mad Max eta Gremlins.

✓ Euskararen astea San Andres Ikastetxean

Astelehenetik ostiralera euskararen astea izan da San Andres Ikastetxean. Hau dela eta, ekintza ugari antolatu dira astean zehar: antzerkia, liburu eta diska azoka, herri kirolak, etab.

✓ Ikastaroak H.H.I. Zentruan

Helduen Heziketa Iraunkorra Zentruan Informatika, Euskal Herriaren Historia eta Eskulan ikastaroak antolatu dira. Ikastaro bakoitzak bi astebeteko iraupena izango du: Apirilaren 24etik 28 arte, eta Maiatzaren 29tik Ekainaren 2 arte. Matrikula dohainik izango da.



besaide Elkarteko ordezkaria beren kilometroa betetzen

Jende askok Korrikan parte hartu

6. Korrikak birritan zeharkatu zuen Arrasate. Lehendabiziz, asteartean, gaueko letan Kanpazarretik etorri zen. Muxibarren itxoiten zegoen jende ugari Korrikarekin bat egin zen, itzalezko tropela osatuz. Eta asteazkenean, goizeko 7,30ak inguruan Mecatik berriro sartu zen herrian. Korrikaren inguruan antolatu ziren ekintzetan ere, festa giroa nagusi, jende askok hartu zuen parte. Besteak beste, txirrindulari mar-txa; eskolaurrek osatutako Korrika txiki eta afari popularra izan zen.

Gure herrian, honako talde eta erakunde hauek eraman zuten testigua, 25.000 pezetako diru-laguntza emanez: Asteartean: Anbulatorioko

kola Politeknikoak, Ikastolak eta HBak.

Bildutako dirutza

Zifra definitiboak oraindik kaleratu ez diren arren, gutxi gora beherrako datu batzuk eman daitezke:

— Kilometroen salmentaren bidez, 506.000 pta. bildu dira (zertxobait oraindik jasotzeke dago);

— Igandeko kuestazioan (saldu-tako materiala kontutan hartu gabe), 116.445;

— Mapan, 54.526;

— Korrika-lagun (enpresa eta dendetan jasotako dirulaguntza): 718.125;

Guztira, 1.395.000 pta. bildu dira, beraz, Arrasaten. Oraindik gelditzen da zati bat jasotzeko, Euskalan Elkartea hainbat lantokietan biltzen ari den dirutza, hain zuzen ere.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diaknostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previasa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

ARRASATE



J. C. Etxeagoin, J. A. Irigarai, T. Larrea eta J. Arejolaleiba

“Un futuro para nuestro pasado” hitzaldi-zikloa bukatu

Joan den osteguneko eta astearte-ko saioekin bukatu da AEDk antolatutako “Un futuro para nuestro pasado” hitzaldi-zikloa. Guztira, hiru hitzaldi izan dira.

Ostegunean, hilak 13, EHuko irakaslea den Koldo Zuazok “Euskalkien eta euskara batuaren erabile-ra-eremuak” izenburuko hitzaldia eman zuen. Zuazok, hainbat datu historikoz baliatuz, gipuzkera betidanik jo dela euskararik garbien eta onenatzat frogatu zuen. Bere ustez, bizkaiera erabili behar dugu konpleju barik. Hiru dira, bestalde, hartu behar diren erizpideak egoeraren arabera hizkera mota bat edo bestea erabiltzeko orduan: hedadura, antzi-



56 lagun apuntatu dira

ableslari guztiak kantatu zuten banan banan bere aurrean.

natasuna eta Euskal Herriaren osotasuna.

Asteartean, hilak 18, zikloaren azken saioa izan zen. Honako honetan J.A. Irigarai, J.M. Larreak eta J.C. Etxeagoinen dinamizatu zuten debatea. Saio honetan Txepetxen ideia batzuk praktikara pasatu nahi ziren; horretarako, alde aurretik euskararekiko norberaren jarrerari buruzko inkesta batzuk banatu ziren partaideen artean. Baina azken finean, partaide gutxi zegoela eta, (Korrikarekin koinziditu zuen eta festa giroa zegoen kalean) debatea ez zen burutu. Hiru hizlariak bat zetozen gure hizkuntzaren aldeko borrokan jokatutako aldatzeko momentua dela esatean. Honen eredia, Txepetxen liburua dugu, hain zuzen ere, borrokaren alde ludikoa erreibindikatu zuten.

Ziklo osoaren balantzea egiterakoan, esan behar arrakastatsua izan dela. Azkenengora izan ezik, oso jende asko hurbildu da hitzaldietara. Saio guztiak bidez grabatu ziren, eta AED esperientzia honi buruzko liburu bat argitaratzeko asmotan dabil (ikus 6. orrian).

Amaitzeko, gogora dezagun Txema Larreak esandakoa, “hizkuntzarako ona dena, ezin da guretzat txarra izan” ..

Abesbatza berria. Astelehenean Arrasateko Musikaleko lokaletan Arrasateko Abesbatzaren lehenengo bilera izan zen. Egitasmoa SUDCen eskutik dator, eta badi-rudi erantzun ona izan duela: dagoeneko 31 emakume eta 25 gizon apuntatu dira. Abesbatzaren zuzendaria Luis Ignacio Ruiz de Alegría izango da. Honek seriotasuna eskatu zuen abesbatza ona egiteko. Aurkezpenaren ondoan,

✓ Azoka

AIEIk (Azterlan eta Ikerketarako Euskal Institutua) Udal Azokaren bideragarritasun-azterlana egingo du. Lehen fasean udalerriko auzotarrei zenbait telefonozko inkesta egingo zaie. Horretarako, Udalak auzotarren laguntza eskatzen du.

✓ Gas naturala

Muxibar enparantza eta San Juan Auzategiaren arteko merkatal eta etxeko gasaren kondukzio-lanen 2. fasea hasi da. Lan hauek Arrasate Pasealekua, Zerkaosteta, Garibai Etorbidea eta San Juan Auzategia ikutuko dituzte. Zerbitzu honetan interesaturik dauden pertsonak, bestalde, Naturgas Enpresarekin harremanetan jarri telefono honen bidez, 79 78 44.

✓ Konfirmazioak

Gaur, ostiralean, San Juan Bataiatzailaren Parrokian 18 eta 20 urte bitarteko 34 gaztek Konfirmazioaren Sakramentua hartuko dute. Elizan Bikari Orokorra den José Antonio Pagola izango da.

✓ Eroski


Eroskik badauka baimena Deba Garaia mailako *maximerkatua* Musakolan eraikitzeko lehenengo obrekina hasteko. Abendurako *maxia* bukatzeko asmoa dute.

Jaiotzak

Ortiz de Mendizabal Orobengoa Andoitz, 9an.
Irazola Hidalgo Janire, 10ean.
Barcía Paunero Idoia, 13an.
Díez Izarzugaza Ibon, 15ean.
Fernández Díaz Unai, 16an.
Ramito Gómez Esther, 16an.

Ezkontzak

Gerardo Uribealago Olalde & Miriam Heriz Rodriguez-Alfonso, 13an.
César Martín Caballero & M^{de} Carmen Sorbona Olivares, 15ean.



ATOR


PEUGEOT-TALBOT

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



Ea non kokatzen dituzun Lagun Aro, Ikerlan eta LKA

Martxoan bete dira 25 urte Eskola Politeknikoa Zentro Asistentzialeko eraikina utzi eta Iturripera etorri zela. Artean Iturripen Tailerretako pabiloia bakarrik zegoen. Material garraio gehiena Arrasate kooperatibak lagatako "Txori Urдина" furgoneta zaharrean egin ziren.

izen propioak

Angel Iturbe, 36, errefuxiatu arrasatearra, Errepublika Domini-karrera eraman dute Algeriatik, beste bost lagunekin batera. Deportazio hau Algeriako elkarrizketen porrotaren ondoren gertatu da. Angel Txomin Iturberen anaia da, Etxazuri baserrikoa. Iparraldean 15 urte egin eta gero Algeriara eraman zuten, non urtebete pasa egin duen.

Agustin Mondragon, 50, zazpi urtez EAJ alderdiko EBBren imajina arduraduna izan ondoren, dimititu egin du bere kargutik. Agustin Fagor taldeko kontsumo saileko marketing zuzendaria da eta Fagor txirritulargi taldeko burua. 1964etik 69ra bitartean ere txirritulargi taldearen arduradun nagusia izan zen.

Iñaki Larrañaga, 58, pintore eibartarrak 18 obra-kolorerik gabekoak-erakusten ditu hil honetan zehar Etxe Aundi jatetxean. Iñaki Gorutz taldeko kide izan zen. Aurretiaz Oliten, Tarazonan eta Bartzelonako Miró museoan, besteak beste, erakutsi ditu bere obrak.

Jose Ignacio Lopez Rekarte, 24, Eibar futbol taldeko jokalaria arrasatearra aitorten garratzak egin ditu prentsan, Txosaren truke Mondrara ekarriko ote zuten beldur. Ondorioz, Eibarko zuzendaritzak jokalaria isuna jartzea erabaki omen du. Jose Ignaciok sei urte egin zituen Mondran, hau Eibarren jokatzen duen bigarren denboraldia izanik. Lanbidez, kotxe saltzailea da, Mugarrin.

Jesus Mari Lazkano, 29, pintore bergararra. Beste bost artistarekin batera, Espainiako Atzerri Ministeritzak guztion lanak Europan zehar erakusteko aukeratu. Oraintsu Bruselasen egin du erakusketa. Laster, Saltzburg, Helsinki eta Estokolmon erakutsiko dituzte beren obrak. Normalean Donostiako Galeria 16an erakutsi ohi du.


AEDek, 7 -

AEKak, 7. Azkenean enpateaz bukatu zen larunbatean Korrikaren programa barruan jokatutako partidua. Kiroltasuna (kirol-trebetasuna beste kontua da, kontuz) eta festa giroa nagusitu ziren. Esa-behar *matcha* ikusteko bildu zen jendetza asko dibertitu zela, jokalaria



Hauekin ez dugu Euskadiko selekzioa osatuko

batzuk jenialak ibili ziren eta. Bide batez, Arrasaten galduta dagoen tradizio bat berreskuratu zen, Zaldibarreko partiduen, hain zuzen.



Fiesta berriak ez dauka antz handirik zaharrarekin

Mugarrin, joan den ostegunean Ford-Fiesta berriaren aurkezpena eta Kontzejonario honen 10. urtemuga ospatu zen. Ekitaldiak jende ugari bildu zuen, guztira 200en bat lagun. Fiesta modelo berria asko gustatu zitzaion han bildutako jendeari. Aurkezpenaren ondoren, *luncha* izan zen.

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

Urbiako pista, aurkako ugari dituen proiektua

Azken denboraldi honetan gure mendietan eragina duten lanek gizar-tean gero eta aurkako erreakzio gogorragoak sortzen dutela esan daiteke, eta horren adierazgarri hor ditugu Leizarango autobia-aren aurkako mugimendua edo Itoizko urtegiaren aurkakoa. Baina gerturagora etorri, gure bailaran horrelako lanek eta bereziki mendiko pistek aurkako mugimenduak sortarazi dituzte. Denok gogoratuko ditugu orain dela urte gutxi Orixol mendian ETBko antena jarri nahi zutela eta horren ondorioz egin nahi zuten pistaren aurkako mugimendua edo Aloña mendian Segura Irratiko antena bat jartzeko egin zuten pistak sortu zituen aurkako ekintzak, Oñatiko ikastetxe eta elkarte ugari bildu zituen.



Hauek ditugu Urbiako artzaien txabolas.

Momentu honetan Urbiara joateko pista berri baten eraikuntzak bizi-ki kezkatzen ditu inguruko mendizale elkarte eta ekologista taldeak. Proiektu hori salatzeke talde hauek konzentrazio deialdia luzatu dute datorren iganderako Arantzazun.

Urbia, Gipuzkoako leku natural bakarrenetarikoa

Lehenik aipa dezagun Urbiak berak duen garrantzia eta esanahia. Aranzadi elkartekoek Urbia parke historiko bihurtzeko proposamena luzatu diote Diputazioari. Eskaera hori egiterakoan Urbia inguruari buruzko azterketa sakon bat egin zuten. Azterketa horretan Urbia Gipuzkoan geratzen den leku "birgen" bakarra dela aipatzen zen, Gipuzkoari dagokion Aralar aldea kontutan izan gabe.

Urbiak betetzen dituen funtzioak ugariak dira. Batetik artzai talde batentzat bizibidea da, bertara Udaberritik Udazkenera joaten direlarik artzai hauek, beren ardiek bertako larretan bazka dezaten. Bestalde,

bere lurretan badu beste aberastasun bat, askotan ezezaguna gertatzen dena. Brontze aroko aztarna ugari dago bertako lurretan, gehienek kontserbazio egoera nahiko txarra bada ere, eta hauetako batzu Iturri-gorriko pista egitean, hain zuzen ere, desagertu egin dira. Bestalde, erromatarrek ere utzi zuten bertan beren presentziaren aztarna eta hala aldare erromatar bat ere aurkituko dugu.

Artzai batzuren eskakizuna

Urbiara joateko orain gutxi arte bi pista egon dira. Bata Araba alde-rik eta bestea Oñatitik, baina azken honek inguruko lurri eragin dien kaltea ikusi ondoren, Oñatiko Udalak berau ixtea erabaki zuen iaz. Pista hau Fraga Urbiara joateko bereziki zabaldu zuten. Beraz, momentu honetan Urbiara joateko pista bakar bat dago.

Urbian aritzen den artzai talde batek, Oñatiko Udalera bidalitako gutun baten bidez, Urbiara joateko beste pista baten eraikuntza eskatu zuen 1987ko Uztailean, bizitza duin bat izateko eskubidea zutela azalduz eta Euskal Herrian hain txarto eta lagata bizi den beste gisa talderik ez dela egongo gehituz. Dena den, esan behar da artzai guztiak honetan ez datozela bat eta 1988an beste artzai talde batek gutun bat bidali zion

Urbia gure lurraldean geratzen den leku natural bakarrenetakoa da eta gero eta kotxe gehiago hurbiltzen da bertara

bertara joaten diren mendizaleak ugariak dira, Aizkorri mendikatera joateko bertatik joatea ezinbestekoa bait da. Azkenik Urbia Gipuzkoako leku natural bakarrenetarikoa dela esango dugu, bertan dauden zuhaitzek eta faunak duen garrantzia kontutan izatekoa delarik. Urbiak

Oñatiko Udalarik pista berri horren eraikuntzak abantaila baino desabantaila gehiago ekarriko zituen ustea azalduz eta pista zaharra konpontzeko eskatuz. Artzai hauek Urbia sofritzen ari den kotxe ugalketa ere salatzen zuten.

Pistaren aldekoek istripu eta ho-

rrelakoetan, pista berriak, Ertzantza Urbiara joateko ere balioko duela aipatzen dute pista defendatzerakoan.

Kontrakoan arrazoiak

Arrasateko Eguzki, Eki eta Besaide mendizale elkarteko partaideekin egoteko aukera izan dugu eta arrazoi ugari aipatzen dituzte pistaren aurka azaltzeko orduan.

Beraiek ez dute ukatzen artzaiek bizitza duina izateko duten eskubidea, baina artzaiek beren salerosketa gehienak Zalduek egiten dituztela aipatzen dute eta Iturrigorriko pista berriak familia baten interesak baino ez dituela asetzen salatzen dute, familia hau artzantzatik ez dela bizi ghituz.

Urbiara dagoeneko "todoterreno" ugari joatea oso kezagarritzat jotzen dute eta Benta inguruan dagoen zikin-keria kontutan hartuz, pista berri baten eraikuntzak eta ondorioz sortuko litzatekeen jende eta kotxe ugaltzeak oraindik kutsadura gehiago ekarriko lukeela azpimarratzen dute.

Bestalde, Aranzadi elkartekoek Urbiara parke historiko (ondasun natural eta arkeologikoak dituen lur ere-

legerik eta norberaren lurretan pistak egiteko askatasun osoa dago. Arazo hau, gero eta larriago bihurtuko omen da, gure lurretan pinua orain dela hogeitamarren bat urte landatu bait zen eta momentu

bati, Juan Gordoia Altolaguirre jaunari, hain zuzen ere, pista berri baten proiektu eta aurrekontua eskatu zion. Proiektu hau Udalak Parzoneriari eman zion. Dena den, Oñatiko Udalak honetan zer ikusi handirik ez



Mendizaleak inguru hau hondatuko den beldur dira

honetan hasi omen dira baserritarrak pinu hauek mozten. Ondorioz, pistak ugalduz eta lurra degradatuz. Honen adibide

duela adierazten du, batetik Urbian Oñatiko artzairik ez dagoelako eta bestetik, pista berri horrek Udalaren lurak ez dituelako zeharkatzen, bere lurrei dagokien pista zatia aspaldi eginda dago eta.

Partzuergoa, Urbiako herri lurren gorabeherak zuzentzen dituen erakundea pista horren alde azaltzen zaigu eta hain zuzen ere pista berri hori bere lurretan kokatuko litzateke. Dena den orain hilabete batzuta Diputazioako ordezkariak, Partzuergo-koek, Oñatiko Udalekoek eta Gipuzkoako mendizale elkarteko buruak egindako bilera batetan gai honi buruzko edozein erabaki hartu aurretik, Aranzadiri eskatutako azterketaren emaitzak kontutan hartzea delibatu zuten.

**Artzaien artean, eritzi kontrajarriak daude pisteren inguruan.
Batzuk pista berriaren alde dauden bitartean, beste batzuk zaharra konpontzearen alde agertzen dira**

mua) egiteko proposamena luzatu dutenean, beste pista baten eraikuntza -lurrari eta faunari sortuko liokeen kalteak kontutan izanik- sinistezina dela diote. Dena den, Urbiakoa konpondu beharreko arazoa dela azpimarratzen badute ere, lurrari buruzko lege baten beharra ikusten dute, momentu honetan ez bait dago pisteren eraikuntza erregulatuko duen inolako

argitzat Ugaztegirako bidean egin duten pista aipatu digute.

Eta instituzioek zer?

Urbiako pistan zer ikusia instituzio ugari duela esango dugu, Oñatiko Udala, Diputazioa eta azkenik Urbiako Partzuergoa.

Oñatiko Udalak artzaien eskarria jaso ondoren, 1987an agronomo



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaikak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

BATEK

ireki berria

EUSKADIKO LURRALDE-SELEKZIOEN 1go IGERIKETA TXAPELKETA



Arrasateko Kiroldegian
1989ko Apirilaren 22 eta 23an
ARRASATE




Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00
ARRASATE

EUSKARAZKO PRAKTIKALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

Kanpaina honetan parte hartuz euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 45.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera
(Euskara Zerbitzua)

HARTU ZURE ETXEAN
EUSKARA IKASLE BAT!



ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

Juanito Arzamendi: "Betidanik izan dugu Akademia Kontserbategi bihurtzeko asmoa"



Juanito Arzamendi

Azkenaldi honetan Arrasate Musikal musika akademia berri bilakatu zaigu, egunkarietan bere inguruan azaldu diren zenbait berriren ondorioz. Egoera hau aitzakia hartuz ikastetxearen sortzaile eta zuzendariarekin, Juanito Arzamendirekin egon nahi izan dugu, akademiaren egoeraz eta musikarekin harremana duten beste zenbait gairi buruz hitz egiteko asmoz.

— Arrasate Press: Juanito, azken egunotan sarritan entzun dugu Arrasate Musikal krisian dagoela, bost milioiko defizita duzuela eta beste zenbait gauza. Horren inguruan zer esan diezagukezu?

— Beno egia da bost milioiko defizita dugula, baina horrek esplikaio oso erraza du. Akademia martxan hasi zenetik hona gurekin hamabiren bat irakasle izan ditugu eta orain urte bi arte irakasle horien lan baldintzak oso txarrak ziren, ez zuten ez oporrik, ez segurantza sozialik ez ezer, orduka kobratzen bait zuten. Irakasle horiek horrela ezin segitu zezaketela erabaki genuen. Kontratuak egiterakoan ikastetxearen aurrekontuak asko puztu ziren, segurantza soziala eta gauza guzti horiek ordaindu behar izan bait ditugu. Zulo hori betetzeko hasiera batean ikasleei kuota igotzea erabaki genuen eta berrehunen batek akademiatik alde egin zuten, kuota ezin zituztelako ordaindu. Beraz, kuota zudenetan utzi genituen. Gure aurrekontua 15en bat milioikoa denez eta Udaletik jasotzen dugun diru laguntza 10 milioikoa, diferentzia hori da krisi deitu den hori.

— Dena dela instrumentu-mota edo espezialitate asko emateak ez al du eraginik defizit horretan?

— Ez, guk hogeiren bat espezialitate ditugu; espezialitate hauek akademia sortu eta urte gutxitara bagenituen eta ez dut uste asko direnik. Egunen batetan akademia kon-

serbategi bihurtu nahi badugu espezialitate hauek edukitzeari beharrezkoa deritzogu. Behin edo behin entzun dugu, kontrabajo ikasle bat dugula eta horrentzat bereziki irakaslea ekartzen dugula. Hori ez da horrela, ikasle hori biolontzelo klaseetan integraturik dago. Ez dugu pertsona bakarreko klaserik eta, azken finean, guztiei ematen dizkiegu bakarkako klaseak, irakasleak ez bait dio taldeari klaserik ematen, pertsona bakoitzari baizik.

— Askotan entzun dugu akademia kontserbategi bihurtu nahi duzuela, zertan dago asmo hori? Eta zein abantaila ekarriko lioke akademiari aldaketa horrek?

— Beno, akademia kontserbategia izango balitz abantaila ugari izango genituzke. Batetik, ikasleek herrian bertan egin ahal izango lituzkete azterketa guztiak, horrek dakartzan abantailekin, klaseak ematen dizkien irakasleak berak egingo bait lieke ikasleei azterketa, kurtsoan zehar izan duten garapena kontutan izateko aukerarekin. Gaur egun Donostiara joan behar izaten dute azterketak egitera hirugarren kurtsoetik aurrera eta sorte hutsa izaten da askotan azterketa gainditzea edo ez. Bestalde, matrikulak gero eta garestiagoak dira eta diru hori Donostiako Udalari ematen diogu momentu honetan. Kontserbategia gurea balitz, diru hori herrian bertan geratuko litzateke.

Guk aspalditik dugu kontserbategi bihurtzeko asmoa. Legeak akademia instituzio batek babesturik egoitea exigitzen du. Udalak babestuko

gaituela esan digu, baina itxaron egin behar, esperantza badugu ere.

— Arrasate Musikalek ez al luke banda edo antzeko bat sortu beharko herrian bere presentzia nabariagoa izan dadin?

— Esan beharra dago Arrasaten banda bagenuela eta 1974ean Udalak kentzea erabaki zuela. Beraz, harrez gero, herrian ez dugu bandarik izan. Momentu honetan guk, hau da, Arrasate Musikalek ezin du banda berri bat sortu, batetik bandarako instrumentuak beharko genituzkeelako eta horrek diru asko gastatzea eskatzen du, guk ez dugun dirua. Bestalde, banda osatzen duten instrumentuak gure ikasleek ez dituzte oso atsegin eta gutxien ikasten direnak dira. Azkenik esan behar da musiko horiei soldata ere ordaindu beharko litzaiekeela eta hori ez dago gure esku. Gai honekin loturik esango dugu askotan ahaztu egiten dela guk banda desagertu zenean orkesta sortzea pentsatu genuela eta orkesta horretan herriko jende ugari aritu dela lan handia eginez eta ezer kobratu gabe. Egia izan daiteke herrian ez dugula kontzertu asko eman, baina hori ez digutelako deitu izan da. Nire asmoa hilean behin kontzertu bat ematea da, horretarako leku aproposa izanez gero. Momentu honetan parrokia da horretarako aproposa, Amaia antzokiak ez du akustikarik eta.

"Nire asmoa hilean behin kontzertu bat ematea da, leku aproposa izanez gero"



Lurralde-Selekzioen 1go Igeriketa Txapelketa

Astebukaera honetan Euskadiko Lurralde-Selekzioen 1go Igeriketa Txapelketa izango da Arrasateko Kiroldegian. Lau ihardunaldietan banaturik (larunbatean, 10etan eta 5etan hasita; eta igandean, ordutegi berdinarekin), igeriketa-mota guztietako 64 proba izango dira. Bizkaia, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta beharbada Bordeleko (baiezta gabe dago) selekzioen junior eta absolutu mailetak igelariak hartuko dute parte. Guztira, 200en bat. Zoritxarrez, Arrasate Igeri Taldeko ordezkariak ez da izango.

Probak duen aurrekontuei dagokienez, esan behar da Federazioaren kontura doan kopuruaz gainera, Igeri Taldeak, hainbat firma komertzialen laguntzaz milioi erdi atera beharko duela.



Gazte eta afizionatu mailako txirrindulariak

Lagun Aro-Fagor taldeko aurkezpena

Joan den ostiralean Lagun Aro-Fagor taldeko taldearen aurkezpena izan zen Aretxabaletan. Gazte mailan, honako txirrindulari hauek osatzen dute ekipoa: **1go urtekoak:** Jokin Garro, J.M. Bruña, Alonso Ojeda, José Aranzadi, José Biteri eta Iñaki Lizarralde. **2. urtekoak:** Igor Ganboa, Gotzon Berezibar, Javi Garcia eta Victor San José. **Zuzendaria:** Roberto López. **Afizionatu mailan:** Igor Arroiabe, Víctor Freire, Josu Lanzos, Aitor Garitano, Jabier Lazpiur, Asier Guenetxea, Kepa Mendieta, Josu Roteta, Iñigo Izagirre, Jon Odriozola, J. L. Fernández eta Mikel Larrea. **Zuzendaria:** Jose Frutos.



UGARTE

industri hornidurak

Arrasate pasalekua

Tfnoa: 79 73 00-8396

Telefax: 793412

ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABALETA (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Kabia

Haltzariak


Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

podiuma

José Luis Armendia.
yogako irakaslea

José Luis duela 11 urte hasi zen yoga praktikatzen, eta gaur egun Arrasate Yoga Elkartearen ardura dauka. Zentrua, duela hiru urte zabaldua, Altamira auzoan kokatuta dago. Bertan yoga, masaia eta kontrol mentala egiten da. Elkarteak 75 bazkide ditu, eta noiz-zean behin laguntzaileak kanpotik ekartzen baditu ere, bertan berak bakarrik egiten du lan. Ekintza ugari antolatzen dira Elkartearen; horra hor, joan zen astebukaerako masaia ikastaroa, edo astebukaera honetan burutuko den dantza orientalekoa.

Hasieratik hasteko, infusio bat dastatzen dugun bitartean, galdetu diogu José Luisi zer den yoga, "lehenengo esango dut zer ez den yoga. Ez da kirola edo gimnasia-rik; erlijio edo sektarik ere ez, yogak erlijio guztiak onartzen ditu eta. Yoga praktikatzeko norberaren mugetatik hasi behar da. Hiru alde dauka: fisikoa, mentala eta espirituala". Zehatzago definitzeko bost puntuk osatzen dute yoga: "lehenengo puntua ariketa fisikoa da. Honen barruan bi fase daude: dinamikoa, gorputza indartzeko balio duena; eta estatikoa edo luzamenduena, flexibilitatea hartzeko balio duena. Bigarrena, arnasa. Teknika batzuk lantzen dira arnasa ondo hartzen ikasteko. Arnasa sabela, bularra edo klabi-



"yoga praktikatzeko norberaren mugetatik hasi behar da"

kularekin har daiteke. Hirugarrena, lasaiketa; honen bidez azido laktea eliminatu egiten da. Laugarrena, elikadura; naturala eta ekilibratua izan behar da. Guk errejimen lak-teo-bejetarianoa dugu. Eta azkenik, konzentrazioa eta pentsamendu positiboa. Hau da, bizitzaren filosofia bat, bere oinarria bakoitzak norberari mugak ez jartzean datza. Hau dena da yoga".

Hippyen garaietan yoga eta filosofia orientala modan zeuden, behintzat bere alde folklorikoenean. Gaur egun badirudi ez dela hainbestera, "bai, zentrua zabaldu zenean ere jende pila etortzen zen. Orain estabilizatu egin da, baina datorrenak gutxi gora behera badaki zeren bila datorren". Galdetzen diogu ea zer jende mota joaten den zentrua, "ba, denetarik. Batzuk medikuak bialduta, bizkarreko minarekin edo arnasa txarto hartzen dutelako. Beste asko, norberaren autoerrealizazioaren bila. Eta beste batzuk, ondo egonda, ondo jarraitu nahi dutelako".

Zesioak direla eta

Zeintzuk diren Lopez Rekarte eta Ferreireoren egoerak argi gera daitezela Mondra eta Eibar taldeek ohar bat atera dute: Bi talderen artean hartutako konpromezueta Lopez Rekarte eta Ferreireoren Mondrara lagatzeko posibilitatea ikusten da. Koteren kasuan, berak emandako ezetza kontutan harturik, Mondrak uko egin dio posibilitateari; eta Ferreireoren kasuan, oraindik Eibarrek ez du eman bere baimena.

Okendo: funtsezko partidua

Kategoria konserbatu nahi baldin badu, Okendo Kirolaki oso ondo letorkioke larunbatean irabaztea. A-2 edo jeisteko fasearen sailkapenaren 3. postuan dago 14 punturekin; eta bere kontrarioa, Bidegintza lehenengoan, puntu bat gehiagorekin. Lehenengo hiruak kategoria konserbatuko dute; beste denak, aldiz, ez.

KIROLAGENDA

- **saskibaloia:** larunbatean, 6,30etan. Okendo-Bidegintza (Zallia).
- **eskubaloia:** larunbatean, 11,15etan: Arrasate K.-Urola (Kadeteak); 12,30etan: Arrasate-Urola (gazte maila); 5etan: Arrasate-La Salie (2. Dibisioa).
- **futbola:** igandean, 5etan: Alaves-Mondra.
- **trial:** igandean, 10etan, Udalan.
- **igeriketa:** Euskadiko txapelketa, larunbatean eta igandean, 10etan hasita Kiroldegian.

Denborapasen soluzioak

Lojika hutsa

- Atxabalta (Akixu, Burutik terminaute, 15)
- Eskoitza (Simon Bolibar, R&R dudua, 28)
- Arrasate (Katanga Blues Band, Txoritxoak pio-pio, 42)
- Gatza (Dorleta, Nire Arlaban maitea, 42)
- Aramaixo (M-Terio, "Frankenstein", 61)



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea

Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

IKERLAN eta Europako Ikerketa Teknologiko Programak

Europako Ikerketa Teknologiko Programen artean, ESPRIT dugu ezagunetarikoa bat. Aurtengo Irailean, Programa honen barruan zenbait proiektu berri garatzeko bigarren eta seguraski azken deialdia egingo da.

Ikerlan bere helburu teknologikoekin bat datozen proiektuetan sartzen saiatuko da, Euskadiko enprekin batera proiektu bat lortzeko lehentasuna izango duelarik. Baina Ikerlanek aurretik ere bazeraman Europako proiektuetan parte hartzeko dinamika eta horren ondorioz, bere aurtengo Gestio Plangintzan hainbat proiektu aipatzen da:

ESPRIT II-2349

ESPRIT-PAQO 504 Zelula malgua bukatu ondoren, ikerketa programa honek beste pauso bati ekiten dio. Lantegi barruko prozesuan, kasu honetan Peugeot/Citroen eta

Pegaso/Enasa, aurreko fasean egoera aurre-konpetitibora garatu den teknologia sartzea da proiektu honen helburua.

ESPRIT II-2431 Etxetako Sistemak.

Etorkizuneko Etxe Adimentsua, sistemaren garapenerako normatiben definizioaren proiektu estrategikoko batean datza. Ikerlan eta Fagor elkarlanean aritu dira proiektu honetan.

EUREKA FAMOS Automatatutako Muntai Malgua.

Ikerlanek, Famos batzordean ordezkari bat du. Batzorde hau, martxan dauden proiektuak aztertu eta ekintzen jarraipena egiteko, Madrilen biltzen da epealdika.

EUREKA AMR Robot aintzindari mugikorrak

C.A.S.A. (Construcciones Aeronáuticas) enpresarekin egiten ari den garapena.

JOULE Plangintza

Ikerlanek Energia Berriztagarrien Institutoarekin batera aurrera daraman Europako Ekonomi Elkarteko Energia Gordetzeko programa bat da.


SPRINT

Teknologiaren berrikuntza eta transferentziarako programa bat da. Buronako E.D.L.S. zentroarekin elkar lan bat hasi berria da.

COMMET

Teknologia ingurunean heziketa eta prestakuntza, Europako Elkarte mailan hedatutako programa bat da. Ikerlan, programa hau aurrera eramateko, Euskadin sortutako erakundearen zuzendaritza batzordeko ordezkaria da. Bestalde eta joan den urtean bezala, Frantzaian eta Ingalaterratik datozen irakasleak Ikerlaneko proiektuetan integratzen dira, Commet programari esker.

Iñaki Aranburu



AHIZKE-CIM Koop. E.

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

Alemana
Frantsesa
Ingelesa
Italianoa

ITZULPENAK

INTERPRETARIAK

Bisitak
Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28-B Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

Astero zuekin

**GABINETE
MEDIKOA**

**Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analistikak**

**Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08**

Sting

Gordon Summer Britainia Haundiko Newcastle-n jaio zen, 1951n Eskolako irakasle eta jazz-zale amorratua, baxujole moduan eman zituen lehen urratsak jazz-klubetan, hainbat urtez, arrakasta haundirik lortu gabe. Geroago, 76-77. urteetan Britainia Haundia astindu zuen uhin sortzailearen sasoian, Policeren jaiotzan partaide izan zen. Punk fenomenoarekin bateratsu, "new wave" mugimendua ere sortu zen, pop jatorrenaren enborrari erritmo arrotzak txertatuz, hala nola, regae, ska eta antzekoak. Madness, Pretenders, Elvis Costello edo Joe Jackson bezalako izen ospetsuak biltzen zituen uhin hartan, Police izan zen emaitzarik arrakastatsuen. Beraien musika borobila zen, perfektoa, eta aldi berean freskoa eta ulerterraza. Sting zen talde hartako konposatzaile nagusia eta kantaria.

Bost urteren buruan, eta beste hainbeste diska kaleratu ondoren, Policek gailurra joa zuen eta estankatzen hasia zen. Gainera, Stingen lidergoa gero eta jasangaitzagoa zitzaien beste bi partaideei eta ezinbesteko banaketa etorri zen 1983an. Stingek bakarkako lanari ekin zion.

Bere erroetara itzuliz, jazz gizez inguratu zen eta "The dream of the blue turtles" kaleratu zuen, ordurarteko estiloa dexente aldatuz. 1987an, berriz, "Nothing like the sun" diska bikoitza egin zuen, aurrekoarekin lortutako arrakasta areagotuz.

Sting-en gaurko musika klasifikagaitza da. Sintesi bitxia lortu du, non une trajikoak eta sentiberak, salaketa politikoa eta dantzarako erritmoak nahasten diren, guztia jазezko oihal mehe batez bildurik. Musika ona izatez aparte, arrakasta masiboa lortzeko gai dena.

Zinemagintzan bestalde lan ugari eginga da, antzesle gisa. Eta giza esku-bideen aldeko borrokan ere buru-belarri ari da, Amnesty International-en aldeko kontzertuak edo Argentinako "Madres de Mayo"ren alde. Orain, berriz, Europako "Verde"en zerredetan hautagai izango den berria ere zabaldu da.

Zenbaitek "mesianismo" salaketa luzatu badio ere, musika negozio soila baino gehiago izan daitekeela frogatu nahi luke Stingek.

Bera, behintzat, musikari soila baino gehiago da, bistan denez

M. Irizar


Diskagintza

Policekin

- Outlandos d'amour (1978)
- Regatta de blanc (1979)
- Zenyatta mondatta (1980)
- Ghost in the machine (1981)
- Synchronicity (1983)

Bakarka

- The dream of the blue turtles (1985)
- Nothing like the sun (1987)



Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera



Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

MONTE
TABERNA

Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera

Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76


OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekurik aproposena

Uribarri Etorbidea 8

“Etxe-Aundi” jatetxean



Zugasti, Emilio eta Agustin

Lehengo batean Oñatiko Torreauzoko “Etxe-Aundi” jatetxera hurbildu ginen hango berri jakin asmoz. Bertan eta mahai baten inguruan patxadaz eserita, hango gerente eta sukaldari diren Emilio Palma eta Agustin Larrañagarekin elkarrizketa luze eta ederra izan genuen. Lehenengoa Argiñano maisuaren sukaldeetan trebatua; bigarrena Bartzelonako “Amalur”ren ekin eta Valentzia, Ibiza eta Iruñeko beste jatetxe batzuetan ibilia. Badira huez gainera beste sukaldari bat eta

gozogile bat, Zugasti, biak gazteak.

Lazarraga familiaren sortetxea dugu “Etxe-Aundi”, XVII-XVIII. mendean eraberritua eta orain dela 10 urterarte aitatutako familiaren ondorengoena izan dena.

Gaur egungo instalazioetan 3 jangela aurkitzen dira (12 lagunekoa bata, 20koa bigarrena eta 160koa hirugarren eta handiena) edozein jatordu mota egiteko prestatuak: bataioak, ezkontza, enpresa, lagunartekoak...

Garrantzi handiena eman gura izan zaio giroari lehengo eta oraingo gauza ederrak elkarrekin lotuta ikusten ditugula. Aipatzekoa da bertan duten arte erakustokia, hilero hilero bere obrak berritzen dituen.

Jatetxe hau zabaldu zela otsailaren 24ean urtebete bete da.

Euskal sukaldaritza berriaren ildo jarraitzen dute baina bertako betiko sukaldaritza ahaztu barik.

Kartari begiratu bat emanez gero

mota guztietako janak aurki ditzakegu baina badirudi jendeak arrainak gogokoago dituela, %80 bateko proportzioan, hauen artean jaun eta jabe legatza delarik.

Era guztietako ardoak aurkitzen dira, Errioxakoak bereziki. Hemen jakin genuen Errioxako ardoa edateko kopa homologatua dagoela, bertan komente erabiltzen dena.

Zera ere aipatu ziguten, oso gazta gutxi eskatzen dela baina beren asmoen artean gazta tabla eder bat edukitzea dela.

Postretan gozogileak lan ugari izaten du sorbeteak eta tartak gertaketan, ze ikusten denez beti tokitxo bat uzten diogu azken plato honi.

Gure aldetik esan beharra dago paregabeako edaria atera zigutela janaren amaieran, urren likorra.

Tokirik ez dagoenez, hurrengo alerako utziko ditugu bertan emandako errezetak.

Morokil taldea

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta
jaki izoztuak
Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

ARRASATE PRESS

Bidaliezazkiguzu
zure kolaborazioak

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Osasuna eta komunitatea

Azken dekada honetan, osasun-problematika konpontzeko, komunitatearen partizipazioarekin kontatzea derrigorrezkoa dela ikusi dute osasun-erakundeek. Eta hau, O.M.S. -Osasunerako Mundu-Erakundeak hainbat bileretan planteiatu du: Alma Atan 1978. urtean, 1986.ean Otawan, eta azkenik Adelaidan 1988.ean. Baina guzti hau, zergatik?

Azkenaldi honetan, hemen, beste herrialde aurreratuetan gertatzen den bezala, Osasun-sistema krisian dago.

Osasun-gastua haunditzen ari da, gero eta gehiago, Bame-Produktu Gordinaren ia %10era helduz. Baina lehengoan esan genuen bezala populazioaren osasunak ez du hobekuntza nabarmenik izan.

Teknologia garestietan diru asko gastatzen dugu eta gaitz asko men-

peraturik daudela esan genezake, baina orain dela gutxi agertu diren gaitzek, ohitura eta bizitzeko estiloarekin zerikusi handia dutela garbi dago; eta hauek gaixo, elbarri eta heriotza ugari dakarte, izugarriko gastu soziala sortzen dutelarik gainera.

Guzti hau ikusirik, komunitateari beste alde batetik begiratzen hasiak dira; horrela, komunitateak dituen ohitura osasungarriak eta osasungarriak ez direnak ezagutzea beharrezkoa da; O.M.S.ek baditu gainera problema batzu konpontzeko proposamenak; eta bizimoduaren estiloa aldatu nahi izanez gero, lehenengo populazioak zer balore dituen jakitea derrigorrezkoa dugu, beste bizimodu hobea batera bultzatu baino lehen.

Egia da tresna onak ditugula pertsona guztiengana hurbiltzeko:

irratia, prentsa, telebista, baina hauek merkatal interesei loturik daude gehienetan. Horregatik, pertsonak erabakietara hurbiltzeko modurik egokiena Komunitatean parte hartzea da.

Komunitate hori, inguru geografiko batetan bizi eta balore eta interesak konpartitzen dituztenek osatzen dute.

Pertsonak ideiak eta sentimenduak konpartitzeko biltzen direnean, bere apatiatik atera eta lanean hasten dira problema konkretu batetan; horrekin komunitatea hobetuz joaten da eta hiritar izaten ikasten da. Horregatik, laster, gure komunitatean sarri agertzen den gaitz arriskutsu bati, Hipertentsioari hain zuzen, aurre egiteko asmoarekin kanpaina bat hasteko asmoa dugu.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*


AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE




Gordetzeko kutxa metalikoak
Otzeratzarrak
Giltzak gordetzeko armalruak
Erramintak eramateko gurdilak
Erramintak gordetzeko armalruak
Lan egiteko aukilak

Notario Etxagibel (Musakola auzoa) Tfnoak: 79 58 11 79 59 76

ARRASATE PRESS

denon artean egiteko
bidali zuen
kolaborazioak



Arrasateko Udalak 1989ko Apirilaren 7an egindako bilkuran honako akordioa hartu zuen:

- Hogeitamar eguneko epeaz jendeaurrera ateratzea Juan José Yarza Mendizabal Jaunak sustaturikoak eta Santiago Aristimuño Mendizabal Arkitekto Jaunak idatzitakoak U. 16. 18 eta U. 6. 12 Unitateetan Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako elementuak aldatzeko proposamenak, iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, eta, hala eritziz gero, planeamendurako beste alternatiba batzu aurkeztu ere bai.
- Hogeitamar eguneko epeaz jendeaurrera Juan José Yarza Mendizabal Jaunak sustaturiko eta Santiago Aristimuño Mendizabal Arkitekto jaunak erredaktaturiko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako U. 6. 18 Unitatearen Barne Éraberrikuntzarako Plan Bereziaren Aurrerapena, iradokizunak egin ahal ditzaten, eta, hala eritziz gero, planeamendurako beste alternatiba batzu aurkeztu ere bai.

Arrasaten, 1989ko Apirilaren 17an

ALKATEA



omu mosaikoak

Zeka-Erakusketa: Otalora leian

Biltegi berria: Meatz Erreka

ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azalaren, ilearen eta hatzalaren gaixotasunak
Azaletiko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

M ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

ETXEBIZITZAK

- Garagea salgai Erdialdean. Tfnoa: 791923
- 60m²ko merkatarizarako lokala salgai. Tfnoa: 797480
- Arrasaten Mertzeria bat esku aldatzen da. Prezioa interesgarria da. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 796578-797916.
- Mutil eta neskak! gelarik libre edo banatzeko baduzu, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 795289 tfnora. Aste bukaeretan: (94) 6849053.
- Alokatzeko pisu bila gabiltza Arrasaten 3 pertsona. Interesatuak dei: 795431 Tfnoa. (gaueko 8etatik aurrera)
- Donostia: konpartitutako pisuan gela edo pisua alokatzeko neska bila nabil. Tfnoa: 796287
- Pisua konpartitzeko pisua behar da. Dei 796982 Tfnoara gauetan.
- Aretxabaletan zapatadenda bat errentan eman nahi da. Tfnoa: 790214
- Ikasleak alokatzeko pisu bila. Tfnoa 551443.
- Pisua salgai erdialdean. Tfnoa: 790773
- Neska edo mutila behar da pisua konpartitzeko. Tfnoa: 795461 (eguerdiko 12etatik arratsaldeko 2etara eta gaueko 9etatik aurrera)
- Erdialdean pisua salgai, Banco Bilbao, 115m²ko etxebizitza, garage individuala eta ganbara. Tfnoa: 795111
- Lehenbaitlehen pisu bat errentan hartu nahi dugu Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa: 790900. Lorea.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Interesatuak dei 79 47 85 telefonora.

- Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.
- Bergara, etxebizitza salgai. Simon Arrieta enparantzan. Tfnoa: 76 29 69
- Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tfnoa: 795233
- Bergara, pisua salgai Matxiategin. Tfnoa: 76 34 23.

LANA

- 20 urteko neska batek umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 797992. Informeeikin eta erantzulea.
- Emakume euskaldun batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 790773
- Eraikuntza irakaslea behar dugu. Interesatuak dei 797938 telefonora.
- Lan Kide Aurrezkia (Euskadiko kutxa) Zurgintzarako makineria alorreko enpresa lider batek, behar du: Pertsonal zuzendaria.
- Emakume bat behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuak dei 795150 telefonora, arratsaldeko 7,30tik 9,30etara.
- Neska edo mutila behar da gozotegi batean, arratsaldetan lan egiteko, lanbat eta igandeetan ere bai. Tfnoa: 79 64 50
- Emakumea behar da hilabete gutxiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahal balitz euskalduna, berehala hasi eta bi urtetarako luzatu daitekeelarik. Interesatuak dei 79 66 38 telefonora. 6,30etatik 7etara.

- Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke: 794020
- Neska gazte batek lan egingo luke Udan: Interesatuak dei 798628 tfnora.
- Neska edo andra euskaldun bat behar dugu haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei 796450 telefonora.

SALEROSKETAK

- Talbot-Samba SS-P salgai. Tfnoa: 782499 eta 782704 (bulego-ordutan)
- SS-2601-T matrikula duen R-11 salgai. Helbidea: Etxostea 18, 3 ez. Tfnoak: etxean 796751 eta lantokian 794700. Gerardo galdetu.
- Ia berri dagoen bi ohe tolesgarrizko armairua salgai. Prezioa elkarren artean jartzeko. Interesatuak dei 797891 telefonora (3etatik aurrera)
- 10 abiadura eta 54 neurrizko "Corbeta" bizikleta salgai dago. Tfnoa: 79 58 29.
- Gure galtzak kriston afuinue dauke. Bigarren eskuko labadora bat pozik hartuko geuke merke edo erregalaute. Tfnoa: 79 88 23
- Bigarren eskuko hotz gailua behar da. Tfnoa: 79 88 23.
- Vespa Iris 200 SS-X salgai. Erosleari bi kasko erregalatzen dizkiot. Tfnoak: 79 76 90 eta 79 75 71.
- Cortes de Navarra herrian nekazal makineria eta kotxeak konpontzeko lantegia esku aldatzen da. Makineria osatua. Bezero asko. Tfnoa: 948-80 01 04



ARRASATEN HILDAKOAK

Cristina Heriz Ezkurra, 82 urte
Apirilaren 14an

Remedios Mendizabal Zeziaga, 77 urte
Apirilaren 15ean

Aurelia Rodriguez Garcia de Olano, 88 urte
Apirilaren 18an

Brigida Etxeberria Olano, 73 urte
Apirilaren 18an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Zeharkale estalia 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Eugenio Sagasta: "Gustoruen jokatu doten partidua Atanillon kontra izen zuan"



Sagasta, Atano III.ak in

FITXA TEKNIKUE

IZENA: Eugenio Sagasta
JAIXO: Mondrauen bertan, karnazerixa gaiñien
ALTURIE: 1,72
PIXUE: 72 kilo. 80 hartu gure eta ezin.
DEBUTAU: 17 urteaz, Bittorixeko "Hotel Fronton" en.

Hasixeran zesta puntan

Bai, pelotarixek atzera itxitteko zesta zahar bi konsegiru gittuan eta halan hasi gitzuan 13 urteaz zesta puntan, Pedro Ugarte eta bixok. Zaldibarren jokaketan gaixuan eta Markinara be jueten gitzuan astien birriten entrenetan, han zesta punta eskolie jauan eta.

Orduen sasoiem hemengo zesta puntistak Ameriketara jueten zittuan bañe aurretik, Bartzelonan ero Zaragozan urte pare bat ein biher izeten zittuan prueban. Han destakau ezker Ameriketarako birie zabalik. Geu be horren atzetik gebitzan; bañe egun gutxire aitte hil jatan eta famelixien kargu ein biher... Hala akabau zittuan nire Ameriketarako ametsok.

Zesta punta itxi eta eskuz

Nik, mutikotan ordu asko eitten nittuan pelotan; goxeko ordu batak arte iguel...

17 urteaz profesional debutau naixuan Bittorixeko "Hotel Fronton" en. Pedro Ugarte eta bi-

xok jokatu gaixuan, Jauregi eta Larrañaga IIan kontra eta 22-19 irebazi.

Harrazkero segundan ibilli nitzuan eta gero 28 urteaz erretirau ein nitzuan etxien be lan asko ta.

Sagasta Atano III, Ogeta eta Atanillokin

Bai, 17 urte naukan. Atano III.ak eta bixok, hiron kontra jokatu gaixuan eta irebazi gañera. Ordureko Atano IIIak 44 urte eindde jaukan. Gero Ogetan kontra be bai. Ogeta profesioaletara pasetako jabillan eta nire kontra jarri juen prueba moruen. Samur irebazi jutzan. Bañe nik neuk gustoruen jokatu doten partidue Atanillon kontra izen zuan. Nik 24 urte naukan eta Atanillok hogeta pare bat. Orduentxe Montevideon afizionauetan Munduko kanpeoi urtenda jauan. Nahiko errez irebazi nutzan. Nik orduen pelotie asko joten naixuan eta ez nutzan jokaketan itxi.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Basarritarrak ugari ikusteiuu hamen eta basarritarrendako kon-
taukot.

Hamen...gaiñea Antzuelakua zan bera; igual ikusi be eingo ziñuen Elusun, mando zuri batekin; da apenas saldu zebanik. Da doiaz, bera ta koñatua; hartu mandua, ta, tipitapatipatapa, Zumarragako ferixara. Da hor Olamendiko kurban, bat atzetik bestia aurretik..., bada-tor trailer bat kurbia hartu ezindda, jo dau mulia ta jo dau pareta kon-tran, da jausi da mulioi, da arrantza batzuk eifi i zittuan da, baiña mobi-mentuik pez. Batak kabezeratik tira, bestiak buztenetik tira, jaiki dabe ta eruan dabe Zumarraño. Behin Deskarga hartu ezker goittik bera. Da, lotu dabe han platano arbolan bati...da, lenengo orduan estimazi-ño haundirik ez. Da gero etorri da valenzianon bat hor, naranjopian lan eitteko bihar zabela, ta, esan jao:

— Buen mula e.

Da baserritarrak erderaz asko jakin bez, da:

— Sí, está pa parir.

Kriston tripia ei jaukan, haundituta, golpia pareta kontran, da ein ddabe tratua, ta esan jotsak batak bestiai:

— Goazen hamendi aguro e, hau akordatzen danian arra dala, e kris-ton eskandalua montaukosku hamen da.


Badoiez, batak txapela kendu ta aintxintxika; batek makillia besa-pian, da bestiak txekia, ta...valen-zianuorrek e:

— Oye, oye, este mula qué es, macho o hembra.?

— No sé, le ha jodido un ca-mión.

Asier Agirrebeña (Bergara)

Juan Martin Elexpuru



JESUS ELKORO
BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



Pedro BITERIren oroitarria

Plaza inguruan dagoen Iturriotz kaleko etxe batetan sortu zitzaigun Pedro Biteri Arana filantropoa (1833-1908). Arrasateko seme aberats honen diruari esker Gipuzkoako hamar herritan jaso ziren eskolak. Lehenengoa bere jaioterrian eraikiarazi zuen Biterik 1902an, orain bere izena daraman kalean.

Argazkian ageri den oroitarria Arrasateko herriak eskaini zion eta eskola horien aurrez aurre jarri zuten 1911n. Piqué, Molina eta Riu-ren artelan hau duela hogeit bat urte lekuz aldatu egin zuten, Bizkaiko Banketxea eta inguruko etxe-multzoa jaso zirenean. Orain San Juan auzoko Alfonso X.aren enparantzan aurkitzen da erdi-ezkutuan ■

—Fotozahar sariketa—

Zein urtetan eraman zen Biteriren oroitarria S. Juan auzora?

“Moises” euskarazko bideofilmea
-VIGURI Bideo Klubak emana-
irabazi nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



ITT

...eta gainera
VIGURIk


hilaren bukaeran
14'ko koloretako

markako TELEBISTA BAT zozkatuko du
hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

H
E
R
R
I
G
I
N
T
Z
A
N

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA




- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bultzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959	1988
Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezkia

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,
Lan Kide Aurrezkia
"Euskadiko Kutxa" da**



Euskadiko Kutxa

Bikote modernoa

Eztiki estaltzen dute oheko izarek Mirenen gorpu biluzia. Bular gazteak nabaritzen zaizkio maindire ximurren artean murgildua. Bere ileak ferekatu ditut ixilpean eta ditiburu lotsatiak leunki laztandu. Irrifartsu ireki ditu begi zabalak. Izugarri maite zaitut. musu eman diot ahoan, bere mihiarekin jolastuz. Nik ere bai esan dut, ene sabelpean bere eskuaren ukidura senditzean, arnasa estuturik; eta lehengo eguzki errainuen babespean jo dugu larrua igande goizean.

Kafesnea prestatu dut sukalde estuan. Azukrerik ez. Ohean gosaldut dugu igande orotan egin ohi dugun bezala, burgesago sentiarazten gaituelako edo, ez dakit.

Ez naiz berandu itzuliko, musu desapasionatu bat masailean, soilik. Atearen hots geldoak azken agurraren soinua ito du, eskaileak jeistean, ene pausoak azkarragotu ditudanean, ez dut bizilagun kuriosorik arian aurkitu, eta tabernarantz bideratu ditut ene urratsak.

Josemariren taberna erdi hutsik dago oraindik. Dukados bat eta deskafeinatua eskatu diot tabernariari. Bazterrean, laupabost gaztek ETArri buruzko eztabaida grinatsua hasi dute, gainerako ahotsak erdibituz. Barra gainean dirua utzi eta alde egin dut. Nonbait nere izena. Kaixo Mikel. Mikel ene laguna da, lagun aproposa igandeak ahazteko. Josemarirena berriz, bi gorri oraingoan. Toki berean dihardute aurreko lerroetan aipaturiko gazteek, baina baretu egin da elkarrizketa. Emakumez mintzatu gara biok. Beste gorri bana, mesedez. Maitemindua dago Mikel. Ez omen da inoiz horrela sentitu. Azken erromantikoa dela dio. Nik ere bai.

Horregatik beharbada, itzuli naiz etxerako bidean, gorriek edo agian elkarrizketak, ene barruak berotu dituenean.

Ordu aproposa.

Ixiltasuna osoa da, erabatekoa. Ez da inor ageri. Logelako atea ireki dut. Miren eta Marta ohean daude, izara nahasien artean korapilatuak. Biluzik biak. Xilio ixil batek ihes egin dio Martari ni ikustean eta burusiekin estali nahi izan du bere txuria. Miren nigana hurbildu, musu eman, eta eskutik hartuaz, ohe ertzera eraman nau. Marta lasaitua dago. Biluzten hasi naiz. Maite zaituztet. Argia itzali eta hirurok bat egin dugu, bikote modernoek egin ohi duten bezela.

Yull Trull



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioak
Offseta
Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

KLINIKA DENTALA

Odontologia orokorra

Ortodontzia

(Umeentz ere bai)

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 73 88

■ **“Goizean behin”go unitate mugikorra:** Aspalditxotik zegoen horrelako zerbaiten beharretan Euskadi Irratia, maiz askotan usain artifiziala zerion eta. Grabazio ugari eta emanaldi bizi gutxi. Albis-tegietan kutsu hori oraindik gordetzen badu ere, “Goizean behin”goek ederto asmatu dute soluzioarekin, Jose Mari Apaolaza eta bere unitate mugikorraren eskutik.

Berebela hartu eta goiz batez Aramaioko ikastolako umeen berri izango duzu zuzen-zuzenean, edo Ataungo kamineroekin solasaldi harrigarria entzuteko parada, edota Mauletik Xiberoko Boza irrati-koen gorabehera eta emanaldiak aditzeko aukera.

Irrasaioak bizitasuna irabazteaz gain, abestiaren “bat gare, bat gera, bat gara eta bat gira”n bezala, euskaldunon bat izate hori bere desberdintasun aberatsean zabaltzen digu sukalde, berebil eta irrati antenak dituzten txoko guztietara. Jose Mari Apaolaza eta bere lankideen lanaren emaitza ederra.

■ **Drogarik ez ukitu, mesedez:** Lehenbizikoan ez nintzen konturatu. Zuribeltzez egindako bideoklipa zelakoan nengoen, azken hitzak agertu ziren arte. Harrez geroztik, laupabost aldiz ikusi izan dut eta, egia esan, telebistan bertan askoz ere irudi gogorragoak ikusi izan ditut, telegunkarietan, esate baterako. Ikuslea jotzea bazen helburua, ez dut uste hainbesterako lortu duenik. Abesti gozoak baduke zerikusirik horretan. Baita iraupenak ere, bere hiru minutu t´erditan bideo-klip luzea bait da.

Iragarkiaren elementurik aipagarriena, neskatilaren aurpegiaren adierazkortasuna. Hor zegoen mezuaren muina: drogak eragindako bildurra, ezintasuna eta oinazea, besteak beste.

■ **ETB, publizitate estatikoa eta Euskadiko Itzulua:** Lau gizonek hartu zioten aurrea tropel nagusiari eta batzuk zein besteak ziztu bizian zetozen helmugarantz. Lau horietatik hiru paretsu zetozen, sekulako sprint luzea eginez. Laugarrena, Fede, atzeraxeago. Tropela begi bistan. Gu erne, irabaziko zuenaren zain. Horretan gaudela eta helmugara heldu baino bi segundo lehenago, dzast, pantailaren behelaldea estaliz, gaseosa amerikar baten publizitatea egiten zuen kartel gorria. Hiruzpalau segunduz, han, pantailari iltzatuta. Erabat zapuztuta, ezin izan genuen ikusi nork irabazi zuen.

Oso itsusia izateaz gain -ikusleari ezin zaio horrelakorik egin-, ilegala ere bada. EITBren legediak garbi adierazten bait du erretransmisioaren une garrantzitsuetan ezin direla jarri zorioneko kartelok, are gutxiago gertaeraren ikuspena oztopatzen dutenean.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Farenheit,** ostiralean, 22,00etan. Aste honetako saioan estudioan Miguel Angel Kintana zine-errealizadorea izango dugu. Kintanak Huescako zine etnografikoko lehiaketan 1. eta 3. sariak irabazi ditu. Hiru erreportaiak: Mak taldeari buruzkoa, Ayui Revoull eta Elena Mendizabal pintorrei buruzkoa, eta Francesc Abad pintore kataluniarraren gainezkoa.

■ **Denborapasa,** ostiralean, 15,00etan. Programa Markinan grabatuta dago. Lau erreportai ikusgai: Bilboko Arriagaren Opera eta Antzerki denboraldia; Zenarruzako Kolegiataren Kontzertu sakroak; Arteleku eta Hegalaldia aire librean. Honetaz gain, Bolibarko Txikia pilotariarekin elkarrizketa zuzenean izango da.

■ **Freud, grina sekreto**a (“Freud, the secret passion”, 1962). Asteazkenean, hilak 26, 21,00etan. Zuzendaria: John Huston. Antzezleak: Montgomery Cliff, Susannah York, Larry Parks. Viena, 1885.ean; Sigmund Freud doktoreak, histeria sendotzeko hipnosia erabiltzen du. Bere ikerketetan zehar, aitaren gorrotoa duen gazte batekin topo egiten du. Freudek, gorrotoa amari eskeintzen dion maitasunak sortzen duela deskubritzen du.

bideoak



Joshue eta Jerikoko gatazka: Israelgo Herria, Joshue buruzagiak gidatuta, berrogei urtean zehar basamortuan ibili ondoren, agindutako lurraldera iritsi da. Hala ere, azken oztopoa gainditu beharrean izango da: Kananeoaren eskuetan dagoen Jerikoko harresi igarokaitzak.

Beti bezala, istorioaren 30'ak euskaraz daude. Baita popurriaren 15'ak ere. Azken hamarrak, oster, gatzelaniaz.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Lojika hutsa

Eurovisioa dela eta ez dela, bada gu ez gara gutxiago eta Leintzvisioa antolatzenkotan gabilta. Lehengoan aprobatxo bat egin zen eta hona suertatu zena. Bete ezazu koadroa.

HERRIA					
ORDEZKARIA					
ABESTIA					
PUNTUAK					

- 1- Arrasatek "Txoritxoak pio-pio" kanta famatu aurkeztu zuen, baina bere ordezkaria ez zen Simon Bolibar izan.
- 2- "R&R Duda" azkenaurrena geratu zen
- 3- Katanga Blues Band-ek, Gatzagar ordezkariak adina puntu lortu zituen, baina bietatik inor ez zen garaile suertatu.
- 4- Akixu-k ez zuen Eskoitzaren ordezkatu.
- 5- "Burutik terminaute" abestiak 15 puntu lortu zituen, enpatatu zuten bietariko bat ez izanik.
- 6- Dorletak "Nire Arlaban maitea" abestu zuen, beste herri batek lortutako 28 puntuak gaindituz.
- 7- M-Terio" taldeak, bere "Frankenstein" abestiarekin, ez zituen 42 puntu eskuratu.
- 8- 61 punturekin, Aramaioarrak irabazi zuen, hau ez zen Dorleta.
- 9- Akixuk ez zituen Arrasateren 42 puntuak berdindu, Eskoitzaren ere bere aurretik geratu zen.

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopoak



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Aste honetan oso hunkigarria egongo zara; holan egoteko arrazoiak ez baduzu ulertzen ere, zure baitan sentzazio berriak aurkituko dituzu. Oso aberasgarria izan daiteke.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Erabaki hori zuk zeuk hartu duzu eta inor gehiago sartzen ez bada, hobeto. Aurrera eramaten baduzu ez zera damutuko, momentu honetan indartsu zaude egoera aprobetxatu behar da.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ametzetan zaude. Beste guztiak ez daude zure esanetara eta ez ahaztea komeni zaizu. Zure irudimen horrek errealitatekin kanpo mantentzen zaitu askotan.



CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Zure inguruko norbaitek bere arazo baten errua botako dizu. Erru osoa zurea ez bada izan ere, badakizu konpontzeko esku hartzea. Batez ere maite duzun norbait delako.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Oso errez haserretzen zara, zure osasunak haxe jasan behar duelarik. Noizean behin brometan ibiltzeko ez dio inori kalterik egiten. Egin ezazu proba, bazilatzea uda honetako modako kirola izango da.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ustekabean harrapatu zaituzte baina hurrengorako ikasi duzu. Hemendik aurrera zure jokua zuzenago izango da, arauak argi ta garbi gelditu dira eta. Badakizu, berandu inoiz baino hobeto...



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez hainbeste kezkatu zure irudiaz, munduan badago beste gai interesgarriak eta. Inoiz arduratu ez zaituenari garrantzi handiegia ematen diozu. Noizbaiten atenzioa deitu nahian, ala?



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Zure eskubideak ez badituzu defendatzen ez duzu gauza handirik lortuko. Tontoarena egitea ez zaizu komeni, jokuan dagoena zuretzat oso importantea da eta. Erne ibili eta ez galdu aukera.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Txoriburu zamar zaude aspaldi honetan. Gauza guztietan sartzen zara bat ere serio hartu gabe. Ez denetara jokatu, benetan nahi duzunaz jabetu eta gogor eutsi. Emaizak hobeak izango dira.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Zure lagunakin garbi jokatzeko ez baduzu azkenean aspertuko da eta beste jostailu bat topatu beharko duzu. Ea garbiago jolasten duzun. Oraindik denbora duzu. Ez loak hartu, mesedez.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Ez etsi, lehenengoan ez bada guztiz ondo atera ekintza hori hurrengoan suerte hobeak edukiko duzu. Karta jokalariek egiten duten bezala, orain duzu aukera manga artean duzun karta hori erabiltzeko.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


Oraingoan ere ia berandu konturatu zara zura egoera larria zela. Erneago ibili behar duzu. Arazoak sortzeaz gain konpondu ere egin behar dira. Baduzu ba, aste osorako lana.

**ZEINTZU I HARDUERA DIREN ARRASATEARRREN GOGOKOENAK
(SIADeco-REN INKESTA BATEN ARABERA)**

Tokia	GAZTEAK(14-24 urte)	GIZONAK(25-64 urte)	EMAKUMEAK(25-64 urte)	EDADETUAK(+64)
	Iharduera	Iharduera	Iharduera	Iharduera
1	Musika modernoa entzun	Kirolen bat egin	Euskarazko eskolak	Paseoan ibili
2	Bidaiak, ibilaldiak	Herriko jaiak	Paseoan ibili	Telebista
3	Kirolen bat egin	Paseoan ibili	Herriko jaiak	Euskarazko eskolak
4	Herriko jaiak	Irakurri	Irakurri	Herriko jaiak
5	Euskarazko eskolak	Euskarazko eskolak	Kirolen bat egin	Kanpoan egiteko ekintzak
6	Zinema, zine klubea	Bidaiak, ibilaldiak	Bidaiak, ibilaldiak	Kirolen bat egin
7	Kanpoan egiteko iharduerak	Mendizaletasuna	Mantenimendu gimnasia	Gastronomia
8	Irakurketa	Kanpoan egiteko iharduerak	Gastronomia	Bidaiak, ibilaldiak
9	Ibiltzea	Herri kirolak	Artisautza, eskulanak	Musika klasikoa entzun
10	Igeri egitea	Futbola	Igeria	Irakurketa
11	Herri kirolak	Atletismoa	Antzertia	Txistua
12	Musika jo	Kirola ikusi	Kanpoan egiteko iharduerak	Mendizaletasuna
13	Argazkiak, bideoa	Zinema	Kirol gimnasia	Pilota
14	Saskibaloia	Mantenimendu gimnasia	Musika klasikoa entzun	Dantza
15	Mendizaletasuna	Pilota	Zinema, zine-klubeak	Kirola ikusi
16	Ordenagailuak	Musika klasikoa entzun	Gimnasia erritmikoa	Eskulanak
17	Kirol gimnasia	Igeria	Mendizaletasuna	Banda sinfonikoa
18	Mantenimendu gimnasia	Ziklismoa	Txistua	Antzertia
19	Wind surfing	Literatura	Erakusketak ikusi	Herri kirolak
20	Atletismoa	Antzertia	Literatura	Futbola

TALLERES OLA, S.L

OPEL en kontzesionario ofiziala



Instalazioak:

**Olabarrena Auzoa, z/g
Tfnoa: 76 33 44/45/46
BERGARA**



Erakustokia:

**Loramendi, 2
Tfnoa: 79 85 06
ARRASATE**

OPEL 